

...eta

Kitto!

818 zkia.
2012-IX-21



Nekazaritza ekologikoa kaleratzen

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

- **Iribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

BEZ-ik igo gabe!!!



GIDA
PRESTATZEN
DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?

DEITU...

943 20 67 76
943 20 09 18

ASTEAN ESANAK

"Elizan krisian dagoena bere egitura monarkiko-absolutista da, ez Jesusekin konprometitutako jarraitzaileen komunitatea. 331 kanonak Aita Santuari ematen dizkion ahalmenak Jainkoa bihurtzen dute"

(LEONARDO BOFF, TEOLOGOA)

"Edaten den lehenengo alkohol tantak, edozein dela eskuan dugun edaria, norbanakoaren gaitasunei eragiten die. Alkohol tasa zerora jaitea ondo dago. Garagardo bat ez edateagatik ez zaio inori ezer gertatuko"

(EUGENIA DOMENECH, ISTIRU-KALITETUA)

"Hemendik joatera behartutakoek botoa ematea putxerazoa? Mingarria zaigu askori Erreterian bizi zen ertzain bati ukatzea Txileko legebiltzarkide pinochetista bati aitortu nahi zaizkion eskubideak euskal jatorria izateagatik"

(RAMON ETXEZARRETA, IDAZLEA)

"Parlament-en gehiengoa gara independentistok: manifestazioan izan ginen, fisikoki, 80 135etik. Demokrazia errespetatuz ere, ezin gara erreferendum batetik abiatu: gaurko komunikabideekin suizidioa litzateke"

(TONI STRUBELL, SI-KO PARLAMENTARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

ITXURA.- Antza, tankera. "Jauntxo itxura gehixago eukan bihargiñana baiño".

ITXURABAKO.- Itxura txarrekoa, zatarra. "Itxurabako agura zahartxo, ximel da gaizki jantzi bati". Zentzugabea. Gaztelerazko 'disparatado'. "Sagarrak eskubariakin batu? Gauza itxurabakuagorik horraitio...".

ITXURAZKO.- Itxura onekoa. "Pelikula itxurazko bat ez dabe botatzen".

ITXUROSO.- Tajuzko, itxura oneko. "Etxia da itxurotua, baiña etxeak itxurabako zoro batzuk". Ganoraz, ondo samar. "Ez zan asko jardundakua, baiña perretxiko batzen be itxuroso ibilli zan".

eskutitzak

IRAILAK 28: AZKEN OSTIRALA

Gogoratu hilero Azken Ostirala Euskal Preso eta Iheslariaren eskubideen aldeko eguna dugula. Eta oraindik 613 preso ditugula, 48 kartzeletan barreiatuak. Horietatik 13k gaixotasun larriak dituzte, eta losu Uribeheberria bezalaxe, kalean egon behar lukete. Beste 69 preso Parot dotrina aplikatuta daude, hau da, kondena beteta duten arren, kartzelan jarraitzen dute.

Horien kasuan, Estrasburgoko Epaitegiak garbi laga du: Espainiar Estatuak dotrina hau ezartzean, Giza Eskubideak urratzen dituela alegia. Hau idazterakoan, ez dakigu zer erabaki hartuko duen Auzitegi Nazionalak, Ines del Rionen kasuan; sententzia hori dela-eta, irailaren 20an egingo duen bilkuran. Hauen talante demokratikoa ezagututa ezin izan esperantza haundirik.

150ek berriz 3/4 edo 2/3k beteta dituzte eta bal-

dintzapeko askatasunean egon behar lukete; Mikel Zarraberen kasua da horietako bat. Eta, guzti horietatik, 7 preso dira soilik Euskal Herrian daudenak. Beste guztiak ehundaka kilometrotara sakabanduta daude, tartean Ibon Muñoa eibartarra, Puerto de Santa Marian zokoratuta.

Eta egoera honi buelta eman beharra daukagu; gutxienez salbuespeneko neurri hauek indargabatu behar ditugu.

Gure ustez, eta uda honetan losu Uribeheberriaren kasuan garbi geratu denez, mobilizazioa da bide bakarra: kaleak bete behar ditugu kartzelak hustutzeko. Eta horretara gonbidatu nahi ditugu eibartar guztiak, datorren irailaren 28an, Azken Ostirala, 19:30etan Untzagan burutuko dugun herri mobilizazioan parte hartuz.

EIBARKO HERRIRA



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi.

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.000 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTA)**

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

autuan

ANIAIZI ONGIETORRIXA

Aniaiz Ariznabarretari ongietorrixa egingo jako hillaren 28xan, 20.30xetan Txaltxa Zelaixan. Ostian afarixa egingo dabe gaztetxian eta txartelak alde zurretik erosteko aukeria egingo da, betko tokixetan.

LANGABETUEN ALDE


Eibarko Eroskik iraila eta urrixan erosketa-karro biña zozketatuko dittu langabezian dagoazenen artian. Zozketan parte hartzeko NAN eta langabetu-txartela informaziño puntuan presentau biharko dira. Bestalde, nahi dabenak langabetueri produktuk emoteko aukeria daka, dendetan ipiñi dittuen edukiontzixetan sartuta.

AUZUETAKO BILLERAK

Udaleko ordezkariak urrixan hasiko dira atzera be auzuetako billerak egitten, hauteskundiak pasau eta gero. Oinguan, gaiñera, Maixa herritarren parte-hartzerako taldekuak eragille izango dira.

Ikasliendako diru-laguntzak

Herriko ikasleri laguntzeko martxan dagozen programak presentau zittuen martitzenian udal-txian: Umeak Eskolara programari jarraituta, 1997ko urtarrillaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bittartian jaixotako



Eibar Merkataritza Gune Irekiak kanpaiñarekin kolaboratzen dau.

umiak izango dabe laguntza jasotzeko aukeria. Dirulaguntzak Ikasleei programako laguntzak, barriz, irakaskuntza arautuko edo lanbide-prestakuntzako ikasleri zuzenduta dagoz. Eskaerak 1987ko urtarrillaren 1etik 1996ko abenduaren 31ra bittartian jaixotakuak egin lekiez. Kasu bixetan laguntasuna 60'10 eurokua izango da eta dirua eskolarako materixala (testu liburu-

rik ez) Eibarko dendetan erosteko erabili biharko dabe. Izan be, Eibar Merkataritza Gune Irekiak kanpaiñarekin kolaborau egitten dau eta, horregaittik, alkarteko dendetan erosiz gero, eurak zuzenian tramitauko dabe eskaeria. Bestela, eskaerak EMGI-ren egoitzan (Untzaga Plaza, 7-3 behean) aurkeztu biharko dira (azken eguna urrixaren 31 izango da).

Mugikortasunaren Astia geurian be

Udalak Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astiarekin bat egingo dau eta horretarako domekarako programaziño berezixa preparau dabe Debegearen, CDR-en, Euskotrenen, Debabarrena txirrindulari taldiaren eta Eibarko Txirrindulari Alkartaren laguntasunarekin. Goizeko 10.00etan hasi eta 13.00ak bittartian Untzagan bizikleta elektrikuen erakustaldixa egingo dabe eta nahi dabenak probatzeko aukeria be eukiko dau. Horrekin batera, Debabarreneko Garraio Publikuaren mapia eta ordutegixak banatuko dittue; eta Eibarko Txirrindularien alkartiak antolatuta, Pedal Eguna ospatuko dabe. Bestiak beste martxa zikloturistia eta mountain bike martxa egingo dira eta umiendako ginkania be ipiñiko dabe martxan. Eta programari amaiera biribilla emoteko, 13.00etan Untzagatik bizikleta martxiak urtengo dau, Karmen kalerañiñu bajau eta atzera be Untzagan amaitzeko.



Zinezko Bizitza Sarixa jasoko dau Javier Agirresarobek

Donostiako Zinemaldixaren barruan, Javier Agirresarobe argazki-zuzendari eibartarrak Zinezko Bizitza Sarixa jasoko dau. Kutxabankeko Urrezko Zerbitzuak emoten daben sarixa, Bilbe VI izeneko eskultura

emoteko ekitaldixa domekan izango da. Sarixa jaso eta jarraixan Montxo Armendarizen "Bihotzeko sekretuak", Agirresaroberen argazki-zuzendaritzapian egindako biharra emongo dabe.



M^a BLANCA MENDIZABAL GANDIAGA




Gure bihotzean
iraunen duzu betiko.

ZURE LANKIDEEN PARTEZ



Gripiaren kontrako txertaketa kanpaiña martxan

Astelehenian ekin zetsen aurtengo gripiaren kontrako **bakunaziño kanpaiñari** 'Gripea hementxe dago. Txertoa jarri' izenburuarekin. Kanpaiñari urrixaren 31n amaittuko da eta, horren harira, 400.000 txerto erosi dittue, bakotxa 2,83 eurotan. Aurkezpenian arrisku taldietan dagozenak (65 urte edo gehiago dakenak, diabetesa dakenak eta gaixotasun kronikuak dittuenak) bakunia ipintziaren garrantzia azpimarratu eben. Txertua ipiñi nahi dabenak bere osasun zentrura jo biharko dau eta bertan txandia eskatu.



L. Alberto Aranberri "Amatiño"

Sosiguz

Gaur egun prisaka bizi garanik ezin gero ukatu. Dana prisaka eta harrapataka egin bihar honen kontra "slow" (astiro, geldo) izeneko filosofixiak ekin detsa indarrarian jartzeari, ostaldeko gure zibilizaziño honetan.

Prisaka bizi bihar hau ez da betikua. Nik ez dot uste aittitta zana prisaka bizi izan zanik. Ezta gure aitta zana be. Nahiz bixak industria-gizartian bizi eta egunero, astelehenetik zapatara, taillarrian 12-14 ordu egin. Gure aurrekorik gehixenak gu baiño bihargiñaguak izan ziran; baiña, halanda be, ez ziran gu bezin prisaka bizi izan. Guk ez dihardugu egun guztian zihar prisaka bihar asko egin nahi dogula, bihargiñ amorratuak garalako, zelan edo halan, denbora urri-urrixan, ziharo bestelango gauza askotara heldu gura dogulako baiño. Abixadia modan dagan honetan, sekulako bildurra hartu detsagu gauzak geldo eta motel egittiari, baiña gure aurretikuen biharrian egitteko modua ez zan geldua edo motela, sosiguza baiño. Jatorrizko esanguran, sosiguzak zerikusi gitxi dauka geldo, motel, astiro edo alper samar jarduntziarekin, lasai, bare, trankil, patxadaz, kontuz eta zentzunez aritziarekin baiño. Eta danok be apurtxo bat sosiguztuko bagiña zentzun guztietan?

Gaur hasiko dira Legarreko jaixak

Gaur eta bixar bittartian ospatuko dittue jaixak Legarren. Txupinazua gaur 20.00etan botako dabe eta jarraixan kalejiria egingo da, trikitala-

ri eta buruhaundixak lagunduta. 20.30xetan patata tortilla txapelketia hasiko da eta gabian kontzertua emongo dabe Badarumba eta Cerebral Effusion taldiak. Bixar eguardittik ekingo detse programiari, kalejiria eginda. Programak jasozten dittuan beste ekitaldixak hónetxek dira: saldia eta txorizua banatzia, umiendako jolasak, herri bazkarixa, makillaje taillarra umiendako, Etel eta Agirrerekin dantzaldixa, "Barreen laborategia" umiendako ikuskizuna, txokolate-jana, kalejiria eta kontzertua eta erromerixa Ni Neu eta Xero Xiette taldiekin (ordutegixa 20. orrixan).



Aurten be izango da umiendako ikuskizunik Legarreko jaixetan.

Grebaren aldeko manifestaziñua 25ian

Datorren astera-ko, iraillak 26rako deittuta dagan greba orokorraren harira, agerraldixa egiñ eben eguztenian Eibar Bilduko ordezkariak, grebaren gaiñan daken jarria azaltzeko. Agerraldixan irakorri ebenari jarraituta, "Debarrenian be egoera ekonomikua oso larrixa da. 3.700 langabetu baiño gehixago dagoz, horretako 2.000tik gora Eibarren. Langabezixa tasa ixa %16kua da, Euskal Herriko altuenetakua, eta datuak gero eta okerraguak dira". Egoera horren aurrian "desadostasuna agertu" eta "erantzun sendua



Eibar Bilduko ordezkariak hainbat eragille sozialen babesa jaso dabe.

emoteko asmoz", herritar guztieri dei egin detse iraillaren 25ian Untzaga plazan 19.00etan grebari babesa emoteko egingo dan manifestaziñuan parte hartzeko. Deialdixari babesa emon detsen erakundiak Alternatiba, Aralar, Eusko Alkartasuna, Ezker Abertzalea, LAB eta EHNE dira.

asteko




41.710

datua

lagun hartu dittue kanpoko igerilekuak ekaifia eta iraila bittartian. 38.563 abonauak izan dira eta 3.147-k sarrerria pagau dabe. Eguneko batzbestekua 364 erabiltzailena izan da, baiña ekaifiak 26xan 1.689 lagun alkartu ziran.

Lau eibartar sozialisten Legebiltzarrerako listan

Alderdi sozialistak urrixaren 21eko hauteskundietarako aurkeztuko dittuan hautagaixen zerrendan lau eibartar dagoz: Gipuzkuako zerrendaburua, azken hauteskundietan legez, Iñaki Arriola Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusixa eta Etxebizitza, Herrilan eta Garraio sailburua da. Zerrendan laugarrena, barriz, Miren Gallastegi da, Eneko Andueza 15. postuan dago eta Ana Telleria 18.ian.



Moto-lasterketak Arrate izenekuen jaixan

Arrate izenekuak domekan ospatu eben euren jaixa, Arratera igo eta bertan egun-pasa ederra eginda. Azken ediziñuetan jaixaren aitzakixarekin prestatzen dittuen jokuak gero eta pisu haundixagua hartzen dihardue eta aurtan moto-lasterketak izan dira protagonista. Edarto pasau eben jaixarekin bat egiñ ebenak.

Paella janda ospatu zittuen jaixak Barrena kalekuak

Zapatuan ospatu zittuen jaixak Barrena kalekuak, ohitturiari jarraituta eguardixan paella lehiaketiarekin hasi eta, jarraixan, lehiaketara presentautako arrozekin auzoko parkian herri-bazkarixa eginda. Paella onenak preparau zittuenendako sarixak banatu zittuen eta bazkalostian musian jokatzeko aukeria izan eben animau ziranak.

Paella lehiaketaren irabazleak.





IGNACIO GOENAGA GALARRAGA

(I. urteurrena -2011-IX-23-)

URAK DAKARRENA URAK DAROA
ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA.

- Etxekoak -

Haren aldeko meza ospatuko da hilaren 30ean
(domekan), 12.00etan hasita, San Pio X. parrokian.





Asier Serranoren

kolaborazioa

Uztaro arraro hartako atean

Mahastiak zeharkatu genituen. Hegabera galdu bat begiztatu genuen zeruan eta hegaberak bi soineko zuri begiztatu zituen airean. Bere galbideari segitu zion. Ez zituen inork soinekoak habitatzen.

Mahats hostoen geriza morean etzan ginen. Mahats mulkoak lehertu genituen azal gurietan. Ardoa haginka edan genuen. Lehen eta azken mozkorra izan zen hura.


Mahats ale heldugabe erraldoia zirudien ilargiak hotz iratzarri gintuen desira nerabearen lozorrotik. Zure eskua hartu nuen nirean urtaroz nahastu ote ginen jakiteko. Mila zauritan eroritako hegabera begitandu zitzaidan esku ahurretan irristatu zitzaigun gorria.

Mahatsa biltzera heldutako ijitoek igitaitxoak zorrotzen zituzten galsoro soildu berri ez hain urrunetan. Kilkerren sehaska kanta mututu egin zen. Uztaro arraro hartako atean geundela jakin genuen.

musika

Txapelpunk
"Krem de la Krem"

Etsaiak hardcore talde mitiko-ko hiru kide batu dira Txapelpunken lan honetarako. "Krem de la Krem" da Lekeitioko taldearen lan berria eta bertsiotz osatuta dago: punk talde ezagunen hamalau bertsiotz moldata dituzte guztira. Cicatriz, Eskorbuto, Zer Bizio, Kortatu, MCD... 1980ko hamarkadako euskal rock erradikaleko ezinbesteko taldeen kantuak biltzen ditu Txapelpunken disko honek.




Etxe
"Haize berri bat"

2011. urtean kaleratutako "Haize berri bat" izeneko diskoa kaleratu du Etxek Baga-Biga diskoetxearekin. Oraingo honetan Iban Gurrutxaga gitarrajolea soilik izan du lagun. Patagonian bizi izandako abenturak eta *El conquistador del fin del mundo* saioaren inguruan sortutako kantuak bultzatu die disko hau kaleratzera. Sei kantu berri eta aurreko diskoetako lau kantu arrakastatsuenak daude diskoan, denak bertsiotz akustikoan.



"Ama Eibarren dago" du izena **Bernardo Atxagak** bere ama zenari buruzko testu nahiko biografikoa kontatzen duen eta BBK-k erdi-isilka argitaratu duen liburuak. "1937 Bizitzak eta bonbak" bildumaren barruan kokatzen da lan hori, "Bizkaiko gaiak" izeneko liburu-sortan. Atxagak atera behar duen "Nevadako egunak" liburuko azkenaurreko atala izango da aipatutakoa. M^a Izaskun Garmendia Albizturren jaioa zen, baina neskatilatan Eibarren bizi izan zen, "zoriontsu gainera".



Ramon Saizarbitoria
"Martutene"

Saizarbitoriak bere eleberri intimoena idatzi du, asteburu bat eta azken maitasun-istorio bat kontatzeko aitzakiarekin, bere bizitzaren erreposoa egiten baitu egileak. Egileak ere atzera begiratzen du, bere paisaiak dakartza gogora, dagoeneko existitzen ez den Donostia, aro baten amaiera, zorionekoa, indarkeriaren azkenarekin datorrena.

Koldo Izagirre
"Egarri egunak portualdean"

Egarri egunak 1977ko uda hartakoak: asean gozatu nahi ditu gazteria matxinatu batek askatasuna, maitasuna, berdintasuna, edertasuna. Egarri anitz honek gatazkan murgilduko du heziketa sozial eta sentimentalean aurreneko pausoak ematen ari den protagonista, hats kolektiboaren eta indibidualismoaren artean bere ezintasun, ahuldade eta ametsekin, gizotasun berri baten bila.



literatura

LIBURU SALDUENAK

- 1.- "Ni Vera" Itxaso Martin
- 2.- "Tximistak" Jean Echenoz
- 3.- "Orbanak" Pello Lizarralde
- 4.- "Martutene" Ramon Saizarbitoria
- 5.- "Hiru gutun Iruñetik" Patxi Zubizarreta

Datozen urtiotan jarraitzeko asmua dakan ekimen barrixa dakagu aste honetan: Debabarreneko Aste Ekologikua. Martitzenian eskindutako hitzaldixarekin hasi zan Astia, EHKO proiektuaren barri emonez Portalean egin zan ekitaldixan. Hor "Ekologikua, basarrikua eta Euskal Herrikua" asmua zelan doian lantzen azaldu eben hizlarixak. Atzo mahai-ingurua izan zan eta bixarko azokiak eta etziko urteeriak amaieria emongo detse Astiari. Biolur, Debemen, Eibarko Merkatarixen Ellkartia eta Eibarko Udala dira jardunaldixan. antolatzailliak




Debabarreneko Nekazaritza Ekologikuaren I. Astia

AZOKIA BIXAR GOIZIAN URKIZUN

Goizeko 09.00etatik
eguerdiko 14.00ak arte.
parte-hartzailliak:

Sosola (Eibar)
Itxesi (Eibar)
Txillarre (Elgoibar)
Miriam Onaindia (Elgoibar)
Doniene (Itziar)
L. Malaxetxeb. (Berriatua)
Pikunieta (Antzuola)
Zuloeta (Arrasate)
Aitor Eizmendi (Zumaia)
Mireia Segura (Zumaia)
Goñabe Sukaldea (Aia)
Aldabazal (Tolosa)
Aikur (Urretxu)
Lanbide (Aramaio)
Ecochips (Zarabiku)
Ibarborda (Unanu)
Bodegas Mendiko (Aibar)
Kontxi (Falces)
M. Sarasola (Nafarroa)
Flor y Nata (Kalagorri)
Ecoliva (Errioxa)
Embutidos Gil (Errioxa)
La Verdera (Ciudad Real)

A tzo, guk ale hau inprentara bialdu eta gero, zan egittekua jardunaldi hauetako mahai-ingurua, Debabarreneko kontsumo taldeen parte-hartziarekin. Ugaritzen doiaz halako taldiak, antolatzailliak esaten daben moduan "bittartekaririk gabeko modelo barri bati jarraitzen detsenak". Modelo hórretan ezaugarri desbardiñeko asmuak batzen dira, "zigilluzko produktuekin batzuk, zigillorik bakuak bestiak". Kontsumi-



Azataporruko bezeroak Itziarko Donienera egindako bisitan.

tzailliak hartutako inizatiberi jarraitzen detse askok: "Badira denda bat dakena produktuak banatzeko, kalian bertan saltzen dabenak...".

Azataporrua da Eibarren talde esanguratsuena. Urtebete eta erdi da alkartia osatu zala eta 50 bazkidien bueltan dabil. Osasuntsu elikatzia dake helburu eta, bide batez, gure produktueri erreparatzia eta sasoiari sasoiuari eustia. Barazkixak Itziarko Doniene basarrittik ekartzen dittue eta

gaztaia eta ogixa Eibarko Solakua dira. Eta bestelako produktuak? "Hamen ez dagauna kanpotik ekartzen dogu", diñoskue. Euren dendia Juan Gisasola kalian dago eta eguaztenetan zabaltzen dabe bezeruentzat, arratsaldeko 17.00etatik 20.00ak arte: ordaintzen daben kuota 12 eurokoa da hillero. Josu Gil herriko basarritarrak be otarrak banatzen dittu etxerik-etxe eta "Bizkaittik etorrita, zuzenian produktuak saltzen dittuena" badago be.

AZOKIA ETA URTEERIA

Enrike Gisasola Eibarko "Sosola" basarrikuak ogixa eta gaztaia eruango dittu bixarko azokara. Ogixa egittekota taillarra be ipintzeko asmua ekan, baiña azkenian Aizpea bere neskalagunak gozogintza taillerra ipiñiko dau "galletak-eta azkarrago egitten diralako eta umiak probatzeko-eta aproposagua dalako". Ez da taillar

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 fax: 943 202564



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Afari osasungarrixak

Elikadurak eta osasunak daken loturari gero eta gehiago erreparatzen detsa jendiak eta Itxesik, horri erantzun nahixan, afari osasungarrixak antolau ditu. Momentuz lau saio dagoz prestatuta, hillian behin, eguenetan egingo diranak: lehelengua hillaren 27xan eta hurrengiak urriaren 18xan, azaruaren 22xan eta abenduaren 13an, azken hau berezixagua "Gabon bezperan izango garalako". Afarixak Portaleko sukaldian egingo dira: "Jateku prestatu nahi dabenak 18.30xetan hasiko dira eta afaltzia bakarrik nahi dabenak 20.30xetan". Preziua 10 euro da eta izena 943-203219 telefono zenbakixan emon leike edo itxesi@telefonica.net helbidera idatzi. Lehelengo saioko menua honakua da: gazpatxua, itsas-espagetixak porru eta almendrekin, brokolia eta arroz osua kakahuete kremarekin, sagar pudiña eta kukitxa.



Jardunaldixena eta azokiarena aukera moduan ikusten dau Itxesiko Jaione Yeregik: "Ez-jakiñ asko dago eta informaziñua askotan ez dogu ondo bideratzen eta, herrixan holako zeozer egonda, hor izan bihar dogula uste dot". Konbentziduta dago jendia janari ekologikuetara gero eta gehiago gerturatzen dala, "batez be osasunagaittik, prebentzio modura, elikadurak etorkizuna markatzen deutsu-eta". Bezeruengaittik galdetuta, azken aldixan gaztien artian nabaritu dau gorakadia, "batez be emakumiak, euren umiengaittik arduratuta. Lehen gaixo gehiago etortzen zan". Elikagai "ez ohikuak" izanda, jendiak askotan "nahi bai, baiña zelan prestatu ez dakixala" diño. Jarrerak aldatziarena norberaren esku daga uste dau: "Gero eta aukera gehiago do-

JAIONE YEREGI:
"Informaziñua jasotzeko aukeria eskintzen dau Astiak"

gu eta informatu biharko geunke: transgenikua jatia nahi badogu ondo, baiña jakinda zer jaten dogun".

Itxesi dendako jabiak "berdurakin egindako konserbak" salduko ditte azokan, "berotu eta jateko prest". Horrekin batera, detergente ekologikuak "erropetarako eta labadoran erabiltzekuak" eta umiendako mota askotako "txutxeak" erakutsiko ditu. Degustaziñorako puntua be ipiñiko dau, bertan saltxitxak, hanburgesak eta mueslixa probatzeko. Eta txufamix-a erakutsiko dau: "Zure esniak (soja, arroza, frutak) egitteko aukera emongo deutsun batidora modokua da". Dendan, gaiñera, oilasko ekologikua saltzen dabe: "Enkarguz ekartzen dogu: oillasko osua, zatixetan... euren bandejetan".

bakarra izango, sukaldaritzakua eskinduko dau-eta Simone Begiristain eibartarrak "era berezixan, beste modu batian, janarixak prestatzeko eta sukaldatzeko era" erakutsiko desku-eta.

Domekako urteerari dago-kixonez, horko gidarixa izango dan "Sosolak" berak esan deskunez, "Euskal Herriko Kantauri aldeko ekosistema naturala zelakua dan jakittekko hainbat erreferentzixa eskin-

tzen dabelako" hautatu dabe Abontza errekatik doian ibilbidia. Dibersidadia be eskintzen dau paseo horrek eta "azpimarratzekua da basarritarren eragiñ argixa horretan". Programaziñuan urteeraren

amaieria 17.00etarako iragarritta badago be, Enrikek diño "eguardi aldian amaitzeko moduan gagoz, Sosolan bertan mokadua hartuta. 09.00etan hasi ezkerro erraz egin geinke. Animatuko neuke jendia".

EGOITZA NAGUSIA
Bilberrito 20 - beheko, eskume

MUGICA FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba
Tanatorio eta Erusketako labora
Egokorren (lugarreko)

Partikular - eratu eta desagur eratu zerbitzuak
Kokot - Eskala - Urteerako eskala
Euskal Herri osoko ospitaleen bertan zerbitzu
Nazioen Nazioerako zerbitzuak

Mugica Ehorzketa
PREMIATUA 1994

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

TXALTXA ZELAI PARKING-ean

Krisiaren eta BEZ-aren
IGOERAREN AURKA
prezioak JAISTEN ditugu

Ordubete: 1'18 euro (eguneko muga: 10 euro)

KRISI-PREZIOAK

Eibar Eskubaloiko atezain hau jubenil mailako lehen urtean dago eta iaz, kadete mailako bigarren urtean, Euskal Ligako jokalarri onenaren saria irabazi zuen eta baita atezain onenarena Leonen jokaturako Espainiako txapelketaren fasean. Urrats sendoak ematen dihardu Mikelek Fernando Fernández "entrenatzaile bikainaren" aginduetara, eta goi mailan jokatzeari amets. Euskadiko selekzioaren hainbat deialditan izan da dagoeneko.

- Noiztik eskubaloian eta zutuen artean?

Hiru urte eta erdi dira dagoeneko, Arratek atezaina behar zuela enteratu nintzenetik. Kantxako jokalarri ere jardun nuen hasieran.

- Beste kirolek ibili zara?

Errugbian bizpahiru urtetan. **- Gogorra izan da Arratek Eibar Eskubaloirako jauzia?**

Nahiko antzera dihardugu, teknikoek-eta jarraitzen dutelako. Pena izan zen Arrateren desagerpena, baloratu behar baita Bartzelona moduko talde handiak Eibarren ikustea.

- Azken denboraldiko sarien artean, zeinek egin zizun ilusio handien?

Euskal Ligakoan lortutakoak meritu handiagoa du, denboraldi osoa delako eta jokalarri onenarentzat. Leonen eskuraturutakoak atezain onenarena zen eta txapelketa hartakoa bakarrik.

- Idolorik bai ate azpian?

Omeier Frantziako selekzio-ko atezaina eta orain At. Madriletik Bartzelonara joan den Sterbik. Ez dut ahaztu nahi Gojko Vucinic Arrateko atezainaren izandakoak eskaini didan

laguntza. Asko erakutsi dit eta prest dago beti laguntzeko.

- Eskubaloia ez dabil txapli-guak botatzeko moduan...

Ez. Telebistan gutxi ematen dute eta, jarraitzen badut ere, kostatzen zait informazioa jasotzea.

- Zein dohai dituzu atezain moduan?

Zeozar nabarmentzekotan, flexibilitatea; bizkor mugitzen naiz. Hala ere, badut oraindik zer hobetu.

- Zelako esperientzia izan duzu selekzioekin?

Oso ona. Hiru urte dihardut Euskadikoarekin. Espainiatik ere deitu zidaten, baina diru kontuengatik ez nintzen joan.

- Ikasketekin konpatibilizatzea erraza egiten zaizu?

Batxilergo Artistikoa dihardut ikasten eta ondo noa, azterketekin-eta ez dut arazorik.

- Baduzu ametsik?

Noizbaiten goi mailan jokatzeari gustatuko litzaidake.

- Denboraldi berrirako, zer asmo dituzu?

Goragoko mailan jokatu dugu eta ez da iaz bezain erraza izango. Ea lehenengo bostzen artean sailkatzen garen.



Mikel Guerra
(ESKUBALOI ATEZAINA)

"Vucinic maisu handia izan da niretzat"

BARRIO autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Pedalaren Eguna ospatuko dute domeka goizean

Mountain-bike irteerarekin hasiko dute jardunaldia, goizeko 09.30etan hasita. Horko ibilbidea honakoa izango da: Eibar, Eizaga, Santa Marina, San Roman ermita, Elgeta, Larralbiltzearra, Egotxeaga, Karabieta, Azurtza, Topinburu eta, Azitainera jaitsita, Untzagan amaitzeko. 10.00etan, bestalde, zikloturisten hitzordua izango da: horiek Ermura joko dute, Trabakuara igo eta Ondarruraino joateko, Debatik pasata honaino etortzeko.

Gaztetxoagoendako aktibitateak 11.30etan hasiko dira. 8tik 10 urtera artekoek itzuli bi eman beharko diote T. Etxebarria, Zuloagak, Plaza Barria, Calbetón eta Untzagan osatutako zirkuitoari eta 10etik 12 urtera artekoek hiru emango diote zirkui-



Goiz osoa hartuko dute Pedalaren Egunaren inguruan antolatutako aktibitateak.

to berari. Batean zein bestean ez da lehia-ketarik izango eta parte-hartzea izango da kontuan. 12.00etan, bestalde, ginkanan parte hartu ahal izango dute denek.

Aurten Pedalaren Egunak Mugikortasun Ijasangarriaren Astearekin egingo du bat

eta, hori dela-eta, 10.00etatik 13.00a arte bizikleta elektrikoaren erakustaldia egingo da Untzagan (probatzeko aukera izango da) eta 13.00ean bizikleta ibilera egingo da Untzagan Karmen kaleraino, Untzagara bueltatzeko.



Jose Antonio Egurrola Azitaingo jaietan beste herri-kirolariek.



Mendigoitxik apustua irabazi zuen Arrateko harriarekin

Aurreko barixakuan Arraten jokaturako gizon-proban, Jose Antonio Egurrolak erraz gainditu zuen bere buruari ipinitako erronka. 1.780 kiloko harriarekin metroa bete zuen 10 minutu eta 15 segundotan, horretarako ordu erdi zuenean. Horretarako, 110 tiraldi eman zizkion harriari denbora horretan. Afaria, beraz, erraz poltsikoratu zuen.



Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS





Bellatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27 Bulegoa: Edebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

© 943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El mundo vive y nosotros vivimos

• Eibar • Donostia • Bilbo • Barakaldo • Leiza • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sopupe • Espinosa de los Monteros

matrikula zabalik

2012/13 EUSKARA IKASTAROAK
goizeko 07.00etatik aurrera

EUSKALDUNTZE OROKORRA
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(AURREZ AURREKOA)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- 3. eta 4. mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

Udalaren laguntzaz **BEKA SISTEMA**

eibar@aek.org

Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: 943 201 379



+ OSASUN GODA

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57



HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

ARRETA-ZERBITZU
INTEGRALA

Hortz-osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura

Mutua, konpeltu eta
koloretan harrizkin
Hundubako zentroa...



943 20 78 51


R.P.S. 148/12
m bista eder



Irrabarreak
gazteko egiten gaitu

Implante eta
Hortz-Estetikako
zabarrak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxa: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI

Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Implanteak / Laser Teknologia / PADI

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90



RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4.

Tel. 943 70 23 85



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia
ume eta
helduentzat**

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05
MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hartz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma

Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia /
Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza


Muzategi 2 (EIBAR)

San Ignacio 2 (ELGOIBAR)

Tfnoa. 943 20 34 46

Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética
Dr. I. Berrón Pared. Ciudad

**MEDIKUNTZA
ESTETIKOA**

**KIRURGIA
ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea

943 206 044

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zbkia.
S. Agustin, 2-4 - M. lokala

**OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA**
Tel. 622 14 58 58

Okulistak



Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica
RECALDE**
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidier
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEIDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
**PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA**

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (IBAR)
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

**MADINA
RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:
deitu 943-206776 telefono zenbakira



Borja Rodríguez

Eibartzelona

Bai, ilusionatuta nago.

Eibar foball taldearekin esan nahi dut. Lehenik eta behin, gure Manixen lan ikaragarria azpimarratu nahi nuke. Bere zenbakiak hor daude eta ezin zaio eskertu baino egin. Dena dela, ziklo aldaketa bat egon dela ematen du. Eta aurtengo Eibarri Bartzelonaren antza hartzen diot. Ez naiz erotu, ez.

Pentsa ezazue. Garitano dugu aulkian. "B" taldeetik dator, eta taldeko jokalaririk ohia da. Guardiolaarekin berdin berdin gertatu zen. Biek zelai erdian jokatzen zuten, eta euren foball ideia oso antzerakoa da. Eibarrek egin dituen fitxaketak, baloiarekin jolasteko izan dira. Lehenengo partidatan argi eta garbi gelditu zaigu zein den Garitanoren filosofia. Eta Guardiola duenaren oso antzerakoa da. Noski, ez daukagu Messi, Xavi edo Iniesta bezalakoak, baina gure arerioak ere ez dira Real Madril, Valentzia edo Sevilla izango.

Guzti honengatik, "feeling" berezia sentitzen dut aurten. Ipuruan ondo pasatuko dugulakoan nago. Kopan ere poztasun ikaragarria izango dugulakoan nago. Aurten bai, dio nere buruak, eta ilusioa ez dut galduko.

Garitanogan konfiantza haundia daukat, eta Eibartzelona taldea jaiotzen ari dela uste dut, benetan. Pentsaurrekoetan ere mutil lasaia da, Guardiola bezalakoak. Gainera, kolore berdinak dauzkagu eta, nork daki, agian Kopan ere elkartu gaitezke. Idazteari lagako diot; izan ere, ilusioak eskuak dar-dar batean ipini dizkit. Aupa Eibartzelona! Aurten bai!

Deporrek atek zabalduko ditu hilaren 29an

Herenegun emandako prentsaurrekoan jardunaldi berezi horren zehaztasunak eman zituzten egun horretarako antolatze lanetan jardun dutenek. Euren esandakoaren arabera, "klubaren atek herritarrei zabaldu eta parte hartzera gonbidatu" nahi dituzte; horregatik, batzorde bakoitzaren "errepresentazioarekin" batera, "norberak probatzeko aukera" ere izango du. Zapatu horretarako egun guztirako

egitaraua prestatu dute: 09.00etan, mendi-irteera eta Urkoko kobazulora; 10.00-etan, argazkiak ateratzen hasi eta roll-eskien erakustaldia; 12.00etan, xake erraldoia, pilotako esku-babesen demostrazioa, urpeko ekintzetako bideoa, txirindularien autobusa eta squash-a. Arratsaldean, 18.00etan, barru herrikoia, xake partidak eta errekaostoen jaitsiera espeleologi taldearekin, San Andreseko karpandorrera eta udaletxeko erlojura eskalatzearekin batera, eta baita ekilibrismo erakustaldia T. Etxebarrian; 19.15etan, altuera eta hesi



Antolatzaileek gogor dihardute prestaketa lanetan.

jauzia, errelebo lasterketarekin. Ate irekien eguna ixteko, Kezkak erromeria antolatu du 20.30etatik 22.30etara.

Herri-bazkarirako txartelak

Eguna biribiltzeko, zelan ez, herri-bazkaria antolatu dute Eibarko Klub Deportibokoek. Toribio Etxebarria kalean egingo da, 15.00etan hasita, eta txartelak salgai daude Deporren bertan (12 euro helduak eta 8 umeak). Bestelako ekintzetan parte hartzeko ere izena ematea komeni da.

Pilota partidu bi gaur Astelenan

Hasiera ona eman zioten Eibarko Klub Deportiboko pilotariak Kluben Arteko txapelketari: Astelenan jokatutako partiduetan, Arrilagak eta Urionabarrenetxeak 22-15 irabazi zioten Alde Zaharrekoek kadeteetan eta Unamunzagak eta Bengoetxeak 22-8 Oizartzungo bikoteari seniorretan. Gaur Zubizarreta eta Agirresarobe kadeteek Lezoko ordezkariak izango dituzte aurrez-aurre eta Larreategi eta Agirrebeña seniorrek Zestoako bikoteari egingo diote aurre. Jaialdia 19.00etan hasiko da.



BIZIA ARRISKUAN

APUNTIA

Everest munduko teilatua parke tematikoa bihurtu dute azken aldian: 300 alpinistekin osatutako ilarak ohiko egin dira. Horietako askok, gainera, esperientzia urria dute. Udaberri honetan bakarrik 11 lagunek laga dute bizi bertan; hori bai, ezin garestiago ordainduta horretara dedikatzen diren agentziei. Negozio arrisksua bihurtu da "azken bidaia" izan daitekeen hori, baina 50.000 euro ordainduta sokak eta beste ipintzen diete euren bezeroei halako merkatu espedizioak antolatzen dituztenek. 1993ra arte hildako bakarra izan zuen Everest-ek nekea dela-eta; ordutik hona, 20tik gora dira euren bizia horrela laga dutenak. Mendi horretan 235 lagun hil dira guztira, eurretatik 65 Nepaleko sherpa etniakoak. Munduan hamalau mendik dute 8.000 metrotik gora, baina Everest-eko gaina da zapalduena: 1953an Edmund Hillaryk eta Tenzing Norgayk igo zutenetik, 3.800 lagun izan dira goi-goian. Bisitarien hutsunei zeinek egiten dieten aurre? Oxigenoaren erabilerak... eta sherpak, nola ez!

Foball-zaletuen bigarren jardunaldia jokatu da asteburuan

Aurreko asteburuan hasi zen foball-zaletuaren Kirol-jokoa ligaren edizio berria eta neurketa parekatuak izan ziren zazpi partiduetan. Txokok irabazi zuen alde handienarekin (5-1 Azkena Kaltoni), Garaje García 4-2 irabazi zion Sporting-i, Alkidebak 3-2 EzDok-i, Koskor azken txapelkunak 2-1 Caserío XOK-i, emaitza berarekin Tankemansak Irukiri, Durango 1-0 nagusitu zitzaion Fontanería Mujikari eta Es-morgak eta Aretok bana berdindu zuten.

Asteburuko partidua honakoak izango dira: bihar, 09.00etan, EzDok-Azkena eta



Sporting-Durango; 10.30etan, Txoko-Garaje García; eta 12-00etan, Tankemans-Alkideba. Etzi, bestalde, 09.00etan, Caserío XOK-Iruki eta Areto-Mujika; eta 10.30etan, Es-morga-Koskor.

Euskadiko hiru-txirlo txapelketa hastear



Lau jardunaldi izango ditu txapelketa horrek, azkena urriaren 20an jokatu dena Eibarko Asola-Berriko bolatokian. Aurretik, baina, beste hiru jardunaldik izango dute bolariak sailkapena zehazten joateko: lehenengo bihar jokatu da Bolibarko Iruzbietan, hilaren 29an Soralezeko Ezozian izango da bigarren jardunaldia eta urriaren 6an Markinako Barinagan izango du hitzordua hirugarrenak. Jardunaldi guztiak arratsaldeko 17.00etan hasiko dira.

berriak

BARAKALDO-EIBAR

Gaizka Garitanoren taldeak Lasasarren jokatu du bihar arratsaldean, 18.00etan hasita, Ligako bosgarren jardunaldiari dagokion neurketa. Eskozia la Bravak eta Premier Bidaiak-ek goizeko 11.00etan irtengo den autobusa antolatu dute Barakaldora joateko. Partidua, dena dela, ETB-1ek emango du zuzenean. Asteazkenean zehar lagunartekoa jokatu dute eibartarrek Azpeitian, Lagun Onakekin, bina berdinez.

FOBALL-ESKOLA

Eibar KEko Foball Eskolan parte hartzeko epea luzatu egin dute eta hilaren 28an amaituko da neska guzti-tzat eta, mutilen kasuan, bakarrik 2004an jaiotakoentzat. Ikasturteko aktibitateak Ipuruako anexoan egingo dituzte eta urrian hasiko dira. Aurretik Eibarko arduradunek bilera egingo dute umeen gurasoekin.

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

Urriak 7 Kilometroak Andoainen



Irteera:
09.30etan
Bueltak:
19.30etan
-8 euro-

JUAN LUIS ULAZIA LANDA 1. urteurrena (2011-IX-25)

"Gure artean ez bazaude ere, GUREKIN zaitugu BETI"

ETXEKOAK





JON MAYA dantzari eta koreografoa

"Gaur taularatuko duguna kutunetarikoena dugu"

Kukai dantza konpainiak gaur 20.30etan Coliseoan emango du "1937 Gogoaren Bidezidorretatik" ikuskizuna. Mireia Gabilondoren gidoiari jarraituta eta bere zuzendaritzapean eta Jon Mayaren koreografiarekin, dantzariek 1937ko maiatzaren 7an Euskal Herriko milaka haurrek gerratik ihesi erbestera egindako bidaia gogora ekarriko dute, ume haietako zazpiren istorioak ardatz modura hartuta. Sarrerak 10 euro balio du.

- Nolakoa da gaurko ikuskizuna?

1937an Gernikako bonbardaketaren ondoren Euskal Herriko milaka eta milaka ume erbestera ihes egin behar izan zuten eta hori da ikuskizunaren ardatza. Guk ume horietako zazpi aukeratu ditugu eta euren bizipenak kontatzeko, musika, dantza eta ikus-entzunezkoak erabiltzen ditugu. Ikuskizuna berez orain dela 10 urte estreinatu genuen, baina aurten bonbardaketaren 75. urtemuga bete dela eta, berri ere taulartzeko eskaera egin ziguten.

- Ikuskizunerako aukeratu dituzuen zazpi ume horiek benetan existitu ziren?

Bai, ikuskizuna prestatzen hasi ginenean dokumentazio lana egin genuen, besteak beste ikus-entzunezkoak irudiak jasotzeko eta guk bizia ematen diegun ume horiek benetan existitu ziren, nahiz eta gertatutakoa kontatzen dugunean guk taula gainean erakusten duguna batzuetan fikzionatuta egon.

- Nolakoa izan da orain urte batzuk estreinatutako lana berri ere taularatzea?



Guretzat ikuskizun oso kutuna da, ez bakarrik kontatzen duen istorioarengatik. Izan ere, Kukai dantza konpainiaren eta Tanttaka antzerki konpainiaren arteko lehen elkarlana ikuskizun honetan sortu zen eta lehenengo entseguan bertan hasita hamaika orotzapen burura etorzen hasi ziren.

- Nolakoa harrera izan du ikuskizunak?

Oso harrera ona izan du, bai Euskal Herrian baita hemendik kanpora eskainitako emanaldietan ere. Besteak beste, ume horiei harrera egiteko Ingalaterran, Southamptonen sortutako elkartekoen aurrean jardun genuen. Eta tarteka, gaur egun aitona-amonak diren Havana barkuan ihes egindako ume horietako bat agertu zaigu, bidairako txartela eskuan duela, eta egia esan horrelakoak oso bizipen indartsuak dira. Beste ibatzuetan, ikus-entzunezkoan emandako irudietan gurasoren bat ezagutzeari ere gertatu zaio norbaiti.

Juan Antonio Palacios Portalean

Portaleko erakusketa aretoak gaur ekingo dio ikasturte berriari, 19.00etan Juan Antonio Palacios argazkilariaren erakusketa inauguratzearekin batera. Hamaika sari irabazi dituen argazkilariak gai eta estilo ezberdinak islatzeko ahaleginari jarraituta aukeratu ditu erakusketarako lanak eta nahi duenarentzat bisita gidatuak eskainiko ditu, hilaren 27an eta urriak 4an, 19.00etan hasita. Erakusketa, berri, urriaren 14ra arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.



Esther Galarza Italian izan da

Hilaren hasieran astebete eman du Esther Galarza artista eibartarrak Italiako Genua hirian, bertako Palazzo Ducalean orain egun batzuk ospatu zuten nazioarteko akuarelarien sinposioan parte hartzen. Euskal Akuarelari Elkarte kidea den eibartarrekin batera elkarte bereko beste bazkide batzuk ere joan ziren eta bakoitzak bertan erakusteko eramandako lanekin erakusketa egin zuten hilaren 13an. Galarzak formato handiko akuarela aukeratu zuen erakusteko eta han bizi izandako esperientziarekin pozarren bueltatu da.



Pedro Makay-ren kontzertua Koskor tabernan

Gaur gauerditik aurrera Koskor tabernan kontzertua ematen izango da Pedro Makay kantautore bilbotarra. "Pedro Makay" eta "Ojos negros" albumak grabatu dituen musikari gazteak etxetik kanpo hainbat estiloren eragina jaso du, baina 2011az geroztik Europara bueltatu eta zuzeneko emanaldiak eskaintzen dihardu Alex Lopez, Josemi "El Mago" eta Kepa Calvo musikariek lagunduta.

UEUk hamar ikastaro emango ditu Markeskuan abendura arte

Urria eta abendua bitartean 13 ikastaro eskainiko ditu UEUk Eibarren eta Iruñean. Udazkeneko eskaintzaren berri eman zuten eguaztenez Ane Sarasua UEUko kudeatzaile nagusiak eta Mari Karmen Menika ikastetxe nagusiko arduradunak. Sarasuaren berbetan, *"Eibarko eta Debabarreneko erreferentzia akademikoa izan nahi du UEUk. Horretarako, Eibar inguruko euskarazko formazio eskaintza zabaldu nahi dugu, beti ere etengabeko prestakuntzaren alorrean. Bestetik, guretzat Eibarko eskaintza hau ere oso garrantzitsua da, izan ere, UEU oraindik egoera ekonomiko delikatuangertatu den bezala, hauek ere arrakastatsuak izatea nahiko genuke"*. Horrela, azken zazpi urteetan egindakoaren bidetik, udazken honetan Markeskuan hamar ikastaro emango dira, hiru atal nagusitan banatuta: informatika eta teknologia berriak atalekoak "Moodle 2.0-aren oinarriko erabilera (on



Ane Sarasua eta Mari Karmen Menika aurkezpen ekitaldian.

line)", "Ubuntu: ordenagailua modu erraz eta librean erabiltzeko" eta "Marketina interneten" dira; giza eta gizarte-gaiak atalekoak "Guraso/hezitzaile eta haurren elkar ulertzea", "Sexualitatean

Udako ikastaroetan parte hartu dutenei euren bizipenak Bizipozen blogean ipintzeko dei egin nahi diete

aholkularitza egiteko jarraibideak osasun arloan", "Bileren dinamizazioa", "Entzun zure gorputza", "Mingostu gabe bizi, ezerekin, inorekin. Zure bizitza aberasteko gakoak" eta "Sormena lantzeko tailerra"; eta osasun zientziak atalekoa, berriz, "Neuromuskuluesketikoen froga diagnostikoak". Ikastaroetan izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko www.ueu.org helbidera jo daiteke edo 943 82 14 26 telefono zenbakira deitu.

laburrak

EUSKERA GURASOENTZAT

Udal Euskaltegiak eta AEK-k, Udalarekin lankidetzan, 0-12 urte bitarteko umeen gurasoentzako euskera saioak (hasierako maila, maila ertaina eta hobekuntza maila) antolatu dituzte. Klaseak astelehenetik eguenera izango dira umeen eskola orduetan. Diru-laguntzak ere egongo dira.

Hasiera maila neurtzeko probak irailaren 19an izango dira, Portalean, 17.00etatik 19.00etara. Interesa duenak umearen ikastetxean edo euskaltegiatiko batean eman dezake izena.

50 URTEKOAK


Aurten 50 urte egin edo egingo dituztenek urriaren 20an bazkaria egingo dute Iruki sagardotegian. 125 lagunek eman dute izena, baina norbait animatuz gero irailaren 30era arte dauka izena emateko aukera. Jaia eguerdian hasi eta iluntzera arte izango da, hainbat ekitaldirekin.



JON JOSEBA ALDAZABAL MUGURUZA

I. urteurrena (2011-IX-19)

Haren aldeko urteurren MEZA ospatuko da irailaren 23an (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokian.




Mª Blanca Mendizabal Gandiaga

ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.

SAN ANDRES ikastetxeko irakasle, ikasle eta gurasoak





Antxon Narbaiza

Elixia eta desamortizaziñua

Badaroiatz Elixia urte batzuk bere gobernupean izan dituan elixa, baselixa eta beste edozein eraikin bere izenean jartzen. Nafarroan egin dan katalogo batek diñuan, 1.000 gora dira Elixia bere egin dituanak. Euren arteko bat, ederra benetan, Otsagabiako Muskilda.

Oker dabil baiña hori erakunde hori uste badau eskubide guztiak dakazela hori egiteko. Millaka eta millaka izan dira katedral, elixa eta abarrak egiten jardun izan daben biharginak. Hónek be harako Cesar erromatar harengandik esaten zana: Caesar pontem fecit, haren modura péntsatzen dabe. Hau da: Cesarrek egin **eragin** eban zubixa. Gaiñera, euren eskuez izardixaz kanpo, herriar guzti-guztiak págatu izan detsez, mendeetan eta mendeetan, hamarrenak eta bestelako zergak Elixíari. Baina nok zer egin izan daben ez detsa inportantziarik emoten itxúria Elixia.

Elixia katakumbetan urten eta Constantino erregeak estatu hizkuntza déklaratu ebanian amaittu ziran heritartasunak. Guri bizitza tokatu jakun "zezenaren narua" (eta ez ondiok sinpatiko bátzuek deitzen daben naruzko zezen), esaten jakon espazio fisikoan, ez gabiz ejenplu barik. Podería izatea aspaldi ikasi eban Elixia. Esaterako, Inkisiziñuak, erakunde bildurgarriak, askatasunari hegalak moztu zetsazen ixa 400 urtean, Aragoiko Fernando katolikoa deittuak ezarri ebanetik XIX. mendea ondo sartu arte (1478-1834). Hain zuzen, mende horretan bertan, Mendizabalen desamortizaziñua etorri zan. Elixia zekazen lur, eraikin, orube, edozelako monumentu enkantean saldu ziran.

Eibarren bertan bi adibide baiño ez ikuseragitteko edonora zabaltzen zala haren jabetasuna. Bazan, XIX. mendean bertan, Ótola auzoan, gaur desagertuta dagoan **Urbangoa** básarrixa. Elixiana, jakaña. Bada, berau be urten eban subastara. Marcos Larrañaga gizaseme batek erosi eban. Baina handik denporaldi batera ez zebala ordaintzen eta barrio be enkantera urten eban.

Bertan baillaran, Katalangoa básarrixa, 1866xan Elorrixoko mojena zan. Maizterra Juan Narbaiza zan. Noiz kanbixatu zan jabez ezin esan.

○ Euskara Frankfurteko Unibertsitatean

Zortzi bat urte da euskara eraman zutela Frankfurteko Unibertsitatean. Euskara Hizkuntza-zientzia Enpirikoen Sailaren baruan dute, hizkuntza kaukasoidetaz izendatuta, eta Baskisch I, II, III eta IV eskaintzen dute bertan. Erromanisten sailean, bestalde, euskal kultura, literatura eta historia eskaintzen da. Unibertsitatean hiru mila aledun euskal liburutegia ere badute eta arduradunen nahia da euskara derri gorrezko ikasgaia bihurtzea, horrelakorik ez baitago Alemanian. Euskara-alemana hiztegia digitalizatzen dihardute, on line kontsultagarri ipintzeko.

○ I. Berbagunea antolatuta dute Bilbon

Mahaiaren inguruan elkartzeko dira euskaldunak eta euskaldun hartzaileak euskara euskaraz elkarbanatzeko asmoz. Bilboko I. Berbagunea Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak enatolatuta dute irailaren 25ean, martitzean, egiteko. Euskararen erabilera kalera ateratzeko xedez. Alhondigan mahaiak ipiniko dituzte eta, moderatzaileen bidez, euskaldunak eta euskara ikasten ari direnak solasaldien kateatuko dira. Hainbat gai jorratu behako dituzte berriketa saioetan eta mahaiz aldatzen joango dira. Jende ezaguna izango da parte-hartzaileen artean.

euskararen txokoa

Euskaraz Bizi Nahi Dut lasterketa egingo da bihar goizean

Euskararen Gizarte Erakunde-en Kontseiluaren eskutik 40 herritan egingo dira bihar Euskaraz Bizi Nahi Dut herri-lasterketak, tartean Eibarren. Adinaren arabera, lau lasterketa abiatuko dira bihar 11.00ak aldera Untzaga edo ingurutik: 6 urtera artekoek San Andres eliza paretik egingo diote lasterketari, Calbetón kalea igaro eta Untzagaraino (200 metro); 6-11 urte bitartekoek Untzagan hasi, Calbetón pasatu, Zuloagatarrenen kaletik jarraitu eta Toribio Etxebarriatik egingo dute antxitxiketan (500 metro); 12-17 urte bitartekoek aurreko ibilbidea birritan egingo dute, 1.000 metroko ibilbidea osatuta; eta 18 urtetik gorakoentzat ibilbidea 5.000 metrokoa izango da (Untzaga, Calbetón, Julian Etxebarria, Toribio Etxebarria, udaletxearen atzeko aldetik Legarrrera, handik Amañara, Torrekuan buelta eman eta Ego Gainetik Untzagara, Bidebarrietan be-



Portalean egin zen ekitaldiaren aurkezpenaren irudia.

hera Urkizu zeharkatu, Barrenara ailegatu aurretik Barakaldo kalerako errebuelta hartu, Urkizutik gora jarraitu Errebal, Toribio Etxebarria eta Untzagaraino, han amaitzeko).


Prezioak, berriz, honako hauek dira: haurren izen-ematea euro bi eta izen-ematea + kamiseta 7 euro; helduen izen-ematea 5 euro eta izen-ematea + kamiseta 10 euro. Aldez aurretik izena eman ez dutenek 10.00etatik aurrera Untzagan horretarako tartea izango dute bihar bertan.

Kamiseta hartu ala ez aukerakoa izango da eta ez da dortsalik izango. Lasterketan parte hartzen duten guztiei diploma emango diete oroigarri gisa eta diplomaren bertan zenbaki bat egongo den zozketan parte hartzeko. Partehartzaile bakoitzak 3 opariren (argazki makina, mp3, bideokamera, presio-eltze elektriko...) zozketan parte hartuko du




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, BRIGIDA eta MATEO, zuen urrezko ezteietan. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, DANEL, hiru urte betetzen dozuz-eta! Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, JUNE, eguaztenian bost urte bete zenduazela. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, YURENE, eguaztenian lau urte bete zenduazelako. Ama, izeko eta osaba, amama eta aitxixa eta birramamaren partez.




Ongi-etorri hillaren 12xan jaixo zan IKER Peña Eguren-i. Laztan haundi bat amatxo Maider eta aitaxo Joni.




Zorionak, LUKEN. Gaur urtetxo bat: konturau orduko haundi egin zara. Patxo bat etxeko danon partez.




Zorionak, OIER Salas Garaiburu, bixar lau urte egingo dozuz-eta. Aitxixa eta amamaren partez.




Zorionak, ODEI, zure bigarren urtebetetzian. Jarraitu haiñ alai guri barre eragitten. Muxu haundi bat danon partez.




Zorionak, LAIA, astelehenian bost urte beteko dozuz-eta. Prest ospatzeko? Kriston jaixa egingo dogu! Askoko maitte zaitugun partez.




Zorionak, BEÑAT Arrillaga Salaberria, haraiñegun bi urte egin zenduazela. Etxekuen partez.



Zorionak, MARTXEL, txapeldun, atzo bost urte haundi egin zenduazela. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Aupa, JOSU eta JOSELUIS!
Zorionak bixori, etxekuen partez.



Zorionak, AMETS Vega, atzo bi urte egin zenduazela. Muxu haundi bat etxekuen partez.

hildakoak

- Serafina Agirrebeña Osa. 84 urte. 2012-IX-13.
- Gerardo Larrañaga Iriondo. 87 urte. 2012-IX-14.
- Elena Suárez Arizmendiarieta. 58 urte. 2012-IX-14.
- Javier Aranberri Trokaola. 78 urte. 2012-IX-15.
- M^a Blanca Mendizabal Gandiaga. 47 urte. 2012-IX-16.
- Manuel Expósito Díaz. 79 urte. 2012-IX-17.
- Victor Iglesias Arizaga. 77 urte. 2012-IX-17.
- Valentin Ostiategi Negueruela. 83 urte. 2012-IX-18.

jaiotakoak

- Ixone Ortíz de Zarate Torre. 2012-IX-7.
- Iker Peña Eguren. 2012-IX-12.
- Aiur Ariznabarreta Mugerza. 2012-IX-12.
- Ane Díaz García. 2012-IX-12.
- Oier Teruel Turrillo. 2012-IX-13.
- Naha Hatra Sahla. 2012-IX-13.
- Lorea Pérez Lastra. 2012-IX-14.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

21ean: 22.30

22an: 17.00, 19.45, 22.30

23an: 17.00, 20.00

24an: 20.30

"Elefante Blanco"

Zuzendaria: Pablo Trapero



(2 ARETOAN)

21ean: 22.30


22an: 17.00, 19.45, 22.30

23an: 17.00, 20.00

24an: 20.30

"Qué esperar cuando..."

Zuzendaria: Kirk Jones



(ANTZOKIAN)

21ean: 22.30


22an: 19.45, 22.30

23an: 20.00

24an: 20.30

"Ted"

Zuzendaria: Seth McFarlane




(ANTZOKIAN)

22an: 17.00

23an: 17.00

"Piratas" 3D

Zuzendaria: Peter Lord



BARIXAKUA 21

LEGARREKO JAIK

20.00. Txupinazoa. Kalejira, trikitilari eta buruhaundiekin.

20.30. Patata-tortilla txapelketa.

22.30. Kontzertua: Badarumba eta Cerebral Effusion. Legarren.

DANTZA

20.30.- "1937 Gogoaren Bidezidorretatik" dantza ikuskizuna, Kukai dantza konpainiaren eskutik. 10 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

00.00.- Pedro Makay-ren kontzertua. Koskor tabernan.

ZAPATUA 22

ASTE EKOLOGIKOA

09.00/14.00. Debabarreneko I. Aste Ekologikoa. Azoka eta tailerrak. Urkizun.

HERRI-LASTERKETA

11.00. "Euskaraz Bizi Nahi Dut" herri lasterketa. Untzagan.

LEGARREKO JAIK

12.00. Kalejira, trikitilari eta buruhaundiekin. Salda eta txorizoa, Piztu elkarteak.

13.00. Umeentzako jolasak.

14.30. Herri bazkaria.

16.30. Makilaje tailerra umeentzat. Etel eta Agirrerekin dantzaldia.

17.30. "Barreen laborategia" umeentzat ikuskizuna.

18.30. Txokolate-jana, umeentzat.

19.30. Kalejira, buruhaundiekin.

22.30. Kontzertua eta erromeria: Ni Neu eta Xero Xiette. Legarren.

DOMEKA 23

ASTE EKOLOGIKOA

09.00.- Baserría eta ekologia: Abontza errekatik ibilbidea. Legarretik abiatuta.

MUGIKORTASUN ASTEA

10.00/13.00. Bizikleta elektrikoen erakustaldia eta probatzeko aukera, dohainik. Debabarreneko Garraio Publikoaren Mapa eta Orduegiaren banaketa. Pedalaren Eguna Eibarko Txirindularien Elkartek antolatuta: zikloturista martxa, mountain bike martxa eta ginkana haurrentzat. Untzagan.

13.00. Bizikleta martxa: Untzaga-Karmen-Untzaga.

MARTITZENA 25

MANIFESTAZIOA

19.00.- Irailaren 26ko greba deialdiari babesa emateko manifestazioa. Untzagan.

ikastaroak

✓ Umeentzako Irakurketa Kluba liburutegian

Hartzaileak: LHko 1., 2., 3. eta 4. mailako umeak. Non eta noiz: **Urriak 23 eta azaroak 20, 18.00etatik 19.00etara, Portalean.**

Informazioa eta eskaerak: Irailaren 21era arte, Pegoran.

✓ Helduen Irakurketa Kluba liburutegian

Non eta noiz: **Urriak 9, azaroak 13 eta abenduak 11, 19.00etatik 20.00etara, Portalean.**

Informazioa eta eskaerak: Irailaren 21era arte, Pegoran.

✓ Lehen Sorospen eta Sorosle ikastaroa

Non eta noiz: **Irailaren 25etik urriaren 17ra, 19.00etatik 21.00etara, DYAre ordezkaritzan (Pagaegi, 5).**

Informazioa eta izen-ematea: 943464622 telefono zenbakian.

✓ Argazkigintza Digitala (lehen urratsak)

Non eta noiz: **Urriak 1, 3, 8, 10, 15, 17, 22, 24, 29 eta 31 eta azaroak 5 eta 7, 19.00etatik 21.00etara Portalean.**

Informazioa eta izen-ematea: Irailaren 17tik 24ra, Pegoran.

✓ Kotxeen mekanika eta etxeko konponketak

Non eta noiz: **Urriaren 9tik azaroaren 27ra arte, martitzenetan, 17.50etatik 19.50etara Andretxean.**

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

✓ Autodefentsa feminista

Non eta noiz: **Urriak 20, goiz eta arratsalde Portalean (ikastaro gelan).**

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

✓ "Sentitu, pentsatu ekin eta mugitu feminismoan!"

Non eta noiz: **Urriaren 1etik azaroaren 5era arte, astelehenean, 18.00etatik 20.00etara San Andres ikastetxean.**

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

HOROSKOPOA

ARIES

Aurreko astean zeozer laga zenuen "zintzilik" batekin. Bihar izango duzu horri beste buelta bat emateko aukera.

TAURUS

Zure bihotzean baten bat tok-tok egiten dabil. Ez izan beldurrik eta zabaldu ateak, damutzen hasi baino lehen.

GEMINI

Lasai, pozik eta energiak beteta zaude. Hain baikor zaude ingurukoak kutsatzen hasi zarela. Animo eta segi horrela.

CANCER

Ahula zarela ematen badu ere, burua hotz izateko gaitasun handia duzu; horrek asko lagunduko dizu egunotan.

LEO

Batzuetan norberari tokatzen zaio "fitxa" mugitzea. Nahi duzun hori eskuratzeko pausotxoren bat eman beharko zenuke.

VIRGO

Despiste horiek, irribarre simple hori... Maiteminduta zaude-eta! Cupidoren gezi hori bihotzeraino heldu zaizu.

LIBRA

Ikasturte hasiera gogorra, ezta? Lasai, gutxinaka egoera berrira egokituko zara-eta. Itxaropenik ez galdu, arren!

SCORPIUS

Aspaldi ezagutu zenuen pertsona hori agertuko da berriz ere zure bizitzan. Naturaltasunez jokatu; zortea alde duzu.

SAGITTARIUS

Aurreko asteburuko ajea eguaztenean kendu eta gero, emaitza atsedean gorputzari eta baztertu parrandak.

CAPRICORNIUS


Osasun aldetik ahul samar zabilta; garbiago jatea komeni zaizu. Saiatu bizimodu lasaiagoa eramatzen.

AQUARIUS

Lagun zentzuduna izaten zara, baina azken aldiak ez dago zure aldamenean egoterik: dena da kexa eta purrustada.

PISCIS

Larregi eskatzen diozu zure buruari eta horrek ez dizu lagatzen zoriontsua izaten. Errealistago jokatu behar duzu.



erakusketak

✓ Irailaren 28ra arte

"Xaouen", **MARTA IRUSTA**. Bitxien erakusketa. *Topalekuan.*

✓ Irailaren 30era arte

AFOTMIR, MONTCADA I REXACH-eko argazkilari elkarte. Erakusketa. *Klub Deportiboan.*

BAKARNE ELEJALDE. Argazki erakusketa. Portalea tabernan.

JOSE IGNACIO DE CASTRO. Argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*

"Mendi artean" **BIXENTE EIZAGAETXEBERRIA**. Argazki erakusketa. *Untzagako jubilatue txean.*

✓ Urriaren 14ra arte

JUAN ANTONIO PALACIOS. Argazki erakusketa. *Portalean.*

farmaziak

✓ barixakua 21

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✓ zapatua 22

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ domeka 23

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ astelehena 24

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ martitzena 25

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ eguaztena 26

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ eguena 27

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

✓ barixakua 28

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR**. Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR**. Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR**. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR**. Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egutegia: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **EIBAR-MENDARO**. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR**. Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR**. Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR**. Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

9	8		3			2		7
		4						9
3				1		5		
		1	7	6				8
2			1	5	7			
	6		9					2
7					6			
5		2		7		9	4	

SUDOKUA

2	1	3	7	6	8	9	4	5
8	6	5	3	9	4	2	1	7
9	4	7	2	1	5	8	3	6
6	9	4	1	2	7	3	5	8
3	5	1	9	8	6	4	7	2
7	8	2	5	4	3	1	6	9
4	3	6	8	5	2	7	9	1
1	7	8	6	3	9	5	2	4
5	2	9	4	7	1	6	8	3

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Estaziño kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, 2 komuna eta trasteroa (8 m²). Iggogailua. 81 m². Guztiz berritua eta altzariekin. Tel. 660-739563.
- Pisua salgai Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, komuna, ganbara eta balkoi handia. Berritzeko eta igogailua jartzekotan. Tel. 645-008496.
- Pisua salgai Errekatu kalean. Logela bi, jangela, sukaldea eta komuna. Altzariekin. Berogailua. Sartzeko moduan. Merke. Tel. 659-757572.

1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 628-872295.
- Gela biko pisua hartuko nuke alokairuan Ermuan. Tel. 608-474923.
- Pisua konpartituko nuke beste lagun batekin Eibarko erdialdean. Tel. 689-236575.
- Pisua alokagai Unibertsitate Laboralaren parean. Lagun bat edo birenzat. Tel. 660-378181 eta 943-207271.

1.3. Konpartitzeko

- Urkin pisua konpartitzeko laguna behar dut. Tel. 686-735525.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Antonio Gisaola kalean. Tel. 610-698277.
- Taberna alokagai Eibarren, jubilaria dela-eta. Sozietate edo elkarteak egiteko aproposa. Tel. 672-777429.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Biolin eta cello bikotea eskaintzen da ezkontzak, mezak eta beste ekitaldietan musika jartzeko. Tel. 666-269636 (Elorri) eta 666-329728 (Joana).
- Mutila eskaintzen da garbiketarako, nagusiak zaintzeko... Tel. 645-555265.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-604531.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-205572 eta 618-175692.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-236564.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 645-557141.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 648-505256 eta 943-821537.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Gizona eskaintzen da baserriko lanak egiteko, tabernak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 688-812845.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 649-775029.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-348180.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 674-027961.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako, batez ere ilepantzaile moduan. Tel. 652-305279.
- Neska arduratsua eskaintzen da asotean birritan eta zapatu goizetan etxeko lanak egiteko. Tel. 680-973549.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 660-213652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683. Maria.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 630-826813.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile. Tel. 606-569927.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 669-311385.
- Emakume arduratsua eskaintzen da tabernak, elkarteak... garbitzeko. Tel. 660-073781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauzez eta ospitalean) eta pegorak garbitzeko. Tel. 699-609190.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan sukaldari. Tel. 637-294236.
- Pedagogiako 3. mailako ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko eta klaseak emateko arratsaldean. Tel. 677-591982.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan sukaldari. Tel. 610-997046.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 636-423493.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-419214.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, biltegian lan egiteko eta igeltsero moduan. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 688-302653.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-306915.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 616-218076.
- Emakumea eskaintzen da hoteleko kamarera moduan, sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
- Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.
- Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo interna. Tel. 646-143287.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo interna. Tel. 646-143287.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-619997. Trinidad.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Orduka. Tel. 690-134485.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.

4.2. Langile bila

- Neska behar da arratsaldeko 16.30etatik 20.30etara umea zaintzeko. Tel. 650-981443.
- Logopeda behar da kabinete pribatu batean. Tel. 943-202715 eta 670-824327.
- Sukaldaria behar da Eibarko taberna baterako asteburuetan. Tel. 677-380689.
- Ilepantzaile behar da ilepaintedi batean. Jornada erdiz eta ostiraletan egun osoz. Esperientzia baloratuko da. Tel. 675-462463.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Pertsona bat behar da DBHko klase partikularrek emateko. Tel. 622-824468.

5.2. Eskaintzak

- Neska eskaintzen da klase partikularrek emateko banaka, urte osorako edo zatika. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-348446.
- Psikologian eta Psikopedagogian lizentziatua eskaintzen da LH klase partikularrek emateko. Tel. 628-591462.
- DBH eta LHko ikasleentzako edozein ikasgaietako klaseak ematen ditut. Tel. 660-197589.
- Atzerriko hizkuntzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrek ematen ditut. Tel. 651-503971.
- Euskerazko klaseak ematen ditut. Azterketetarako prestakuntza: EGA, HABE, IVAP... Tel. 620-608065.
- Neska euskaldunak etxeko lanekin lagunduko lieke DBH-ra arteko umei. Tel. 687-033834.
- Klase partikularrek ematen ditut. Talde txikiak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle trukea eta azterketen prestaketa. HEO. Tel. 647-275374.
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Euskaldun zein erdaldunentzat, haur zein helduak. Tel. 660-378181 eta 943-207271.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Autorako segurtasun aukia salgai. 1 taldea, Chicco markakoa. Tel. 669-208763.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Astelehen goizean txori txiki marroia aurkitu nuen T. Etxebarria kalean. Tel. 943-200345.

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



1990 geroztik, zuretzat berritzen!

multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan

Bidebarrieta, 2 • Tel. 943 20 05 22 • EIBAR



bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75**